



EUSKAL SORTZAILERAK BEHAR DIRA EUSKARAZ ETA 4K TEKNOLOGIAN LEHEN SERIE DIGITALA SORTZEKO

- **Eiken Klusterrak eta EITBk gidatutako Next Station plataformak ideien lehiaketa bat deitu du, proiektua 2018an filmatzeko**
- **Edonork har dezake parte lehiaketan; nahikoa da gizarte-sareen bidez proposamenaren bideo bat bidaltzea azaroaren 25a baino lehen**
- **Hiru hautatuek prestakuntza jasoko dute, eta haietako batek serie bat filmatzeko ametsa bete ahal izango du; ETBk emango du seriea eta nazioartean ere zabalduko da**

Bilbo, 2017ko azaroaren 7a.- Euskadik serie digitalen alde apustu egitea erabaki du. XXI. mendeko entretenimendu-proposamen berria da serie digitalena, azken aldian alde batera uzten ari baita zinema, telebista eta ohiko formatuak. Horren erakusle da NEXT STATION plataforma, ikus-entzule berriei bideratutako ikus-entzunezko formatu berriak sortzeko laborategia. Honako eragile hauek dira partaide Next Station plataforman: EIKEN (Ikus-entzunezkoen Euskal Klusterra), EITB eta hiru euskal ekoizpen-etxe (Media Attack, Develop Huyb eta J.O.K. films). Laguntzaileak, berriz, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskaltel, Eusko Jaurlaritzza eta Mondragon Unibertsitatea dira. Plataforma publiko-pribatu hau talentu berrien alde ari da apustu egiten, eta komunikazio- eta informazio-teknologiaren goraldiarekin puri-purian diren ikus-entzunezko formatuak ari da bultzatzen.

Hala, Next Station plataformak deialdi bat egin du euskal sortzaileak erakartzeko. Euskarazko lehen serie digitala ekoiztea da asmoa, azken-azkeneko teknologia erabiliz gainera, 4K ultra-bereizmena. Proiektua asmo handikoa da; seriearen denboraldi oso bat filmatzea da xedea, 6 kapitulu guztira.

Bakar batek izango du aukera ametsa egia bihurtzeko: euskaraz eta 4K teknologian eginiko lehen seriearen aurreneko denboraldia ekoiztea. Profesionala izan ala ez, edonor aurkez daiteke formatu original eta berritzaileak bilatzen dituen ideia lehiaketa honetara. Ideiak 'selfie' erako bideo batean edo bideo narratibo batean bidali daitezke. Gehienez ere minutu batekoa izango da bideoa eta proiektuaren garapena edo ideien berezitasuna azalduko dira bertan. Azaroaren 25a baino lehen bidali behar dira bideoak, Next Station plataformaren Facebook-eko (@nextstation.club) gizarte-profilera.

Aurkeztutako proiektu horietatik 20 aukeratuko dira, eta hautaketa bi modutara egingo da: batetik, aditu talde batek erabakiko du beren ustez zein diren ideia onenak, eta, bestetik, jendeak gizarte-sareen bidez eman ahal izango du bere bozka. Ondoren, hiru sortzaile hautatuko dira, beka baten bidez prestakuntza jasotzeko. Mondragon Unibertsitateak Bilbon duen egoitzan, BBF eraikinean (Bizkaiko Berrikuntza Faktoria) eta Donostiako Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan jasoko dute prestakuntza hori.

Informazio gehiago:

ANA LARIZGOITIA-L&V COMUNICACIÓN Tel.. 94 416 08 00 // 656 788 328 larizgoitia@lvcomunicacion.com



Hiru horietako bat izango da lehiaketaren irabazlea, eta bere seriearen denboraldi oso bat grabatuko duena. Seriea 2018an ekoiztu eta filmatuko da, ETBn emango da eta nazioarteko hainbat merkatutara bideratuko da VOD plataformei saltzeko, hala nola Netflix eta HBOri.

Metodologia propioa

Luis Berasategik, BBFko zuzendariak eta MIK (Mondragon Innovation & Knowledge) zentroko ikertzaileak, sortu du Next Station plataformarako lan-metodologia. Prestakuntza-ibilbide berritzaile horren bidez hiru sortzaile horiek aukera izango dute beren proposamenak ekoizpen arineko dinamikekin fintzeko, ideiarekin bilakaera gizarte-sareetan testatzen duten bitartean. Prestakuntza horretan, adituen eskutik 'biblia' arin bati emango diote gorputz, edukiaren prototipoak lantzeko eta ideia bideragarria egin ahal izateko.

Ikus-entzunezko laborategi horren asmoa da sortzaileei laguntzea prototipoak egiten, ikus-entzunezko formatuak lantzen, narrazio-molde eta teknologia berriei esperimendatzeko eta ideia berritzaileak nazioartera eramaten. Ondoren, hautatuek aukera izango dute Next Station plataformaren kalitate-zigiluarekin nazioarteko merkatuetara jotzeko, bideragarritasun ekonomikoaren eta berrikuntzaren berme baita zigilu hori.

Next Station plataformaren eragileak

Euskal Herriko ikus-entzunezkoen sektoreko hiru gazte ekintzaile elkartu dira formatu berrien laborategi aitzindari hau martxan jartzeko, beti ere EITB eta EIKEN gidari direla. Hiru hauek: **Diego Urruchi**, **Media Attack** transmedia-agentziaren sortzailea; **Elbio A. Nielsen**, **Develop HUB** komunitatearen sortzailea eta presidentea (ikus-entzunezko proiektu berritzaileak bultzatzen ditu komunitate horrek eta sektoreko hainbat profesional biltzea lortu du arrakasta handiz) eta berrikuntza masterraren koordinatzailea; eta **Jokin Etcheverria**, **J.O.K films** etxearen sortzailea, eta Pirinioen bi aldeetako hainbat mediotan zinema ekoizlea.

EIKEN, ikus-entzunezkoen euskal klusterrak, antolaketa mailako hainbat aldaketa izan ditu azkenaldian, publizitatearen munduko eta sormen digitalaren munduko hainbat enpresa bildu dira klusterrera, eta Aletxu Echevarría presidentea ere oraindik orain hartu du lema, eta jakin izan du hiru sortzaile ipurterre horiei konfiantza ematen, NEXT STATION sortzeko. Plataformaren helburua da ideiak trukatzeko dinamika bat sortzea, sormen eta abangoardiako talde baten filosofiarekin.

Ekimenak, finean, Euskadin ikus-entzunezko digitalen sektorea bultzatzea du xede, eta, asmo horrekin bat eginez, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek laguntzen dute proiektua, baita Euskaltelek ere.

www.nextstation.club

Informazio gehiago:

ANA LARIZGOITIA-L&V COMUNICACIÓN Tel.. 94 416 08 00 // 656 788 328 larizgoitia@lvcomunicacion.com